

Tolosar baten gorpuzkinak Erorien Haranetik ateratzea eskatu dute

Lucas Ugarte Plaza 1936ko gerran hil zen, eta haren gorpuzkinak jaioterritik Erorien Haranera lekualdatu zituzten; Tolosako udalbatzak aho batez onartu du senideek aurkeztutako testua // 2

Liburutegia jolasgune ere bilakatu nahi dute, Plazida Otañon

Aiztondoko liburutegian Jokotarte egitasmoa martxan jarri berri dute; mahai jolasetan eta rol jokoetan aritzeko aukera dute gaztetxoek // 3

Neguko jaiez eta inauteri ohiturez ariko da, Oier Araolaza, Lizartzan

Otsolar dantza taldeak antolatuta, 'Inauteriei mozorroa erantzten' hitzaldia eskainiko du adituak // 6



Gari Otamendi, Aitor Atxega eta Pili Legarra izan ziren aurkezpen agerraldian. ENERITZ MAIZ ETXARRI

Pello Errota unitate didaktiko bilakatu dute, transmisiorako

Datorren igandean izango da bertsolari asteasuarraren heriotzaren mendeurrena, eta iaz hasitako kultur hitzorduek jarraipena izango dute, udazkenara bitarte // 4



Aiztondoko eskola publikoa Aurrematrikula urtarrilak 28 - otsailak 8



Lucas Ugarte Plaza Tolosara ekartzeko eskaera onartu dute

Tolosako Udalak urtarrileko osoko bilkuran onartu du mozioa, ondoren, eskaria Espainiako Gobernuari bidaltzeko; gai gehiagoren inguruan ere aritu ziren



Udalak aho batez onartu zuen Lucas Ugarte Tolosara ekartzeko eskaera. J.A.

Josu Artutxa Dorronsoro

Urteko lehen osoko bilkura izan zen, herenegun, Tolosako Udalean, eta Lucas Ugarte Plaza tolosarren gorpua Erorien Haranetik jaioterrira lekualdatzeko eskaera izan zen gai nagusia: aho batez onartu zuten.

Mozioa hiru udal taldeek aurkeztu zuten, eta Peio Etxabe EH Bilduko zinegotziak irakurri zuten. Udalak Espainiako Gobernuari egin dion eskaera dela eta, Lucasen gorpuzkinak bueltan ekartzeko Ugarte Plaza familiari laguntzea babestu zuten, eta alkateari beharrezkoak diren agiriak sinatzeko baimena eman zioten. Alderdi guztiek elkartasun hi-

tzak izan zituzten familiarentzat.

Ondoren, familiako kideek hartu zuten hitza, emozioz beteta. «Lucas ez zen norbanako bat izan, herrian oso sartuta zegoen familia langile bateko kidea bai-zik» adierazi zuen bere iloba Karmele Ugartek. Gainera, senide guztiek esker hitzak izan zituzten, udal ordezkarietaz, eskainitako babesagatik. Peonek gaiari «jarraipen zabala» egingo diotela azaldu zuten.

LANPOSTUEN PROFILAK BIRDEFINITZEN

Besteak beste, pbra lantaldeko udal langileen lan baldintzen erregularizazioa eta lanpostu zerrendaren aldaketa onartu zituz-

ten. Iaz, lanen azterketa egiten hasi zen udala. «Zenbait egiteko, egutegian aurreikusita ez zeudenak izaten ziren», Olatz Peon alkatearen hitzetan. Orain oinarriak zehazteko bilerak egin diuzte, eta proiektuak 22.901,47 euroko gastua izango du guztira.

Tolosako Udalaren ezagutza dokumentatua helburu duen Udaleko Izapideen Eskuliburua ere aho batez onartu zuten. Bertako testuak Euskara eta Berdintasun sailtako teknikariek aztertu eta zuzendu dituzte, eta dagoeneko irakurgai dago udalaren webgunean. Lan-talde bat sortuko dute, fitxa teknikoak sortu eta edukia eguneratzeko.

Abenduan, lanpostuen ze-

renda onartu zen. Horien artean zegoen, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Departamentuko buroarena. Bilkuran, lanpostu horren titulazioa eta administrazio-eskalaren aldaketa onartu zuten, aho batez. Lehen Euskal Filologian lizentziatua izatea beharrezkoa zen baina, baldintzak aldatuta, sarbide titulua mugatu gabea eta irekia izango da orain. Iñaki Irazabalbeitia EH Bilduko zinegotziak gaineratu zuten, «sailko arduradunek kudeaketa ardurak ere izan behar dituztela». Jarraian, Kontratazioko Mahai Iraunkorraren osaera onartu zuten.

SUHILTZAILEAK ETA UGARTE

Mozioak ere izan ziren tartean. Batetik, Gipuzkoako suhiltzaileen zerbitzua indartzeko eta lanpostu berriak sortzeko eskaera

egitea proposatu zuten. Tolosako udalbatzak bat egin zuen dokumentuarekin, «foru aldundiari aurreikusita dauden hobekuntza guztiak egitea eta giza baliabide gehiago jartzea eskatuz; baita lan eskaintza publiko berriak ahalik eta azkarren zabaltzeko ere». Christian Fernandez PSE-EEko zinegotzia abstenitu egin zen, «erabakiak hartzerakoan, alde guztiekin elkarriketak ez izateagatik». EH Bilduko Cristina Pelaez zinegotziak hartu zuen hitza, ondoren. «48 lanpostu berri sortzea beharrezkoa ikusten dugu, askotan, bajak betetzea tokatzen delako». Peonek gogorarazi zuten, legeak direla-eta, «egitasmoa ezin elabat-batean gauzatu». Bilkuran Tolosako parkeko 4 suhiltzaile ere izan ziren, «prozesuaren kronograma» eskatuz.

J. Artutxa

Karmele Ugarte, Nerea Ugarte eta Juan Ramon Insausti Ugarte bilobak, eta Ekhiñe Atorrasagasti Karmele Ugarteren alaba, osoko bilkuraren lekuko izan ziren, asteartean, Tolosako udaletxean. «Tolosan ez ezik, Gipuzkoa osoan zehar zabalduko familia da ugartetarrena», dio Ekhiñek. Bilkurara bidalitako idatzian, 15 bat kideren izenak agertzen dira, baina gehiago dira babesema eman

«Jaioterrira itzultzeko eskubidea du»

Lucas Ugarte Plazaren familiak zuzenean jarraitu zuen udaleko osoko bilkura. Hunkituta eta pozik irten ziren aretotik, baina badakite oraindik lan handia dagoela egiteko

nahi dutenak: «Jende askoren artean aurrera ateratako egitasmoa da».

«Beremunda Plaza Lucasen ama eta gure birramonak sekulako ahalegina egin zuen, bazekielako semeetako bat ez zegoela bere hilerrian», diote. Garai haie-

tako kontakizunak eta argazkiak gordetzen joan da familia, egungo egoerara heldu arte.

Duela zortzi urte inguru dokumentatzen hasi zirela dio Karmele Ugartek. Bere aitarengandik hasi zen, osaba Lucasengana heldu arte. «Soldaduskara joatea tokatu zitzaion 1935ean, eta ejertzitoarekin eraman zuten gerrara. Levanteko frontean hil zen. Bere ama Beremundak semearen gorpua Teruelen erreskatatu zuen 1939an, gero Tolosara ekarri eta bertan ehorztek».

1959rako eraiki zuten Erorien

Harana: «Hura bete behar zutela-eta, Tolosatik hainbat gorpu eraman zituzten, tartean Lucasena». Baina, diotenagatik, Tolosako hilerriko dokumentuetan ez du jartzen bertatik eraman zutenik. «Hala ere, duela gutxi Aranzadik baieztatu zuen, 1962an Erorien Haranean sartu zutela».

Hasi berri den prozesua luzea izango da familiarentzat, baina erakunde publiko batek eskaera onartzea zen lehen urratsa. «Eraman zutenek ekar dezatela, beste la gu joango gara bere gorpuren bila».

80

TOLOSARRAK ERORIEN HARANEAN

Zenbait ikerketa lanek adierazten dutenaren arabera, 1.091 Euskal Herritarren gorpuk daude Erorien Aranean. Horietatik 231 dira gipuzkoarrak, eta zifrak guztiz zehatzak ez badira ere, tartean, 80 tolosar daudela diote ikerketek.



Lucas Ugarte. UGARTEPLAZA FAMILIA



IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburak.eus-en

Zaintza eta garbiketa

Tolosa. Adineko pertsona bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko norbait behar da. Informazio gehiagorako, interesa duen orok, 666 739 044 telefono zenbakira deitu dezake.

Aisialdirako gune izan nahi du Aiztondoko liburutegiak

Jokotarte egitasmoarekin,
«irudimena eta pentsamendua»
bultzatzen duten jolasetan aritzeko
aukera izango dute gaztetxoek

Jon Miranda Zizurkil

Ikasteko, liburuak kontsultatzeko, irakurtzeko eta materialak mailegatzeko tokia da Aiztondoko Plazida Otaño liburutegia. Arantxa Zabala eta Irene Urruzola liburuazainek, aisialdiarekin ere lotu nahi dute espazioa. Zabalak nabarmendu duenez, aisialdia beti lotzen da kirol edo dantzarekin, eta beste aisialdi eta jolas mota batentzako gune bihurtu nahi dute, aurrerantzean, liburutegia: «Ikusten dugu badagoela beste aisialdi mota bat, eserita, mahai baten inguruan, pentsatzen eta irudimena jorratzen laguntzen duena. Gure lanbidearekin zerikusi zuzena dute balio horiek eta, hortaz, liburutegia espazio egokia iruditzen zaigu horrelako jolasetarako».

Hemendik aurrera, gerturazten diren herritarrek mahai jolasak izango dituzte, aukeran, Plazida Otaño liburutegian. «Batik bat, hileko azken larunbatetan erabili ahal izango dira» Jokotarte izena jarri diote egitasmoari, eta estreinako saioa urtarrilaren 26an egin zuten, goizez, 11:00etatik 13:00etara.

XAKEA ETA ROL JOKOAK

Pixkana, hainbat mahai joko eskainiko dituzte liburutegian eta, lehen saioan, besteak beste, xakean aritzeko aukera izan zuten gaztetxoek. «Pentsamendua eta kontzentrazioa» landu nahi dituzte, 10 urtetik gorako neska-mutilekin. Zabalak esan duenez, jokoak ezagutzen dute bailarako

umeek, «ikastetxeetan bertan ikasi dutelako». Villabonan, gainera, xakearen inguruko elkarteak badago, eta gazte asko dira, astero, jolas horretan aritzen direnak: «Guk eskaintza berri honekin erakutsi nahi diegu, xakean aritzen direnei, liburutegia ere badela horretan aritzeko espazio bat. Liburuazainei xakerako txakur eskatzea besterik ez dute».

15 urtetik gorakoentzat, berriro, rol jokoan aritzeko aukera eman nahi dute Plazida Otaño: «Hemen, herrian, badugu jolas horietan aritzen den gazte bat, Beñat Madariaga, eta iruditzen zitzaiagun aprobeztatu beharra zegoela hori. Rol jokoak ezagutzera emateko eskatu genion». Oraingoan, lau pertsonak eman dute izena, baina beste birentzako tokia dago. Horretarako liburutegira jo beharko da, izena ematera. Otsailaren 23rako egin dute hurrengo hitzordua.



Larunbatean egin zuten, lehen aldiz, egitasmoa, Aiztondoko liburutegian. ATARIA



«Rol jokoek,
batez ere,
irudimena lantzen
laguntzen
dute»

BEÑAT MADARIAGA
ROL JOKOETAN MASTERRA

J.M.

Robotika eta Automatizazio ikasketak egin zituen Beñat Madariagak (Zizurkil, 1996) eta, duela urte eta erdi inguru, anaia-aren eskutik, rol jokoan munduan murgiltzen hasi zen. Orain afizioa zabaltzeko asmotan da, Zizurkil berran.

Zer dira rol jokoak?

Rol jokoak mahai jokoak dira, partxisa izan litekeen bezala, baina istorio batekin. Istorioko kide dira jokalariek, eta antzeztearen parekoa da, lagunaren edo ezagunaren artean. Mundu ezberdinetan jokatu daiteke eta, irudimenarekin, istorio politak osatzeko aukera ematen du.

Zertan oinarritzen zarete Zizurkilgo rol joko horretan?

Middle Earth izeneko jokoan oinarritu gara, J.R.R. Tolkienen mundua islatzen duen jokoan; *Eraztunen Jauna*, esate baterako, bertan kokatuta dago. Zizurkilgo liburutegian arrakasta handia dute Tolkienen liburuek, eta horregatik aukeratu genuen.

Zein izango da Zizurkilgo osatu duzun taldean zure zeregina?

Nire kasuan, mاستerra izatea dago, munduaren gidaria, nola bait esateko. Zein misio, zein aukera dauden azaltzen dut, baina gero jokalariek egiten dute azken aukera. Nik arau guztiak dauzkat eta, arau berriak nahi badituzte, sartu ditzaket; agertokia, pertsonaiak... Horiek denak azaldu behar ditut.

Zertarako dira baliagarriak rol jokoak?

Rol jokoek, batez ere, irudimena lantzen laguntzen dute, beste mundu bat irudikatzen duzula, eta gauza berriak pentsatu behar izaten dituzulako, etengabe.



ZALETASUNA PIZTEN

Pello Añorga ipuin kontalari eta Huheziko irakasleak hitzaldia eskaini zuen asteartean, Plazida Otaño liburutegian. 0 eta 7 urte bitarteko haurren gurasoentzat aritzen, etxean ipuinak kontatzeko oinarritzko gida ematen. «Nola eraiki dezakegu etxean elkar entzuteko espazioa?», galderari erantzuten saiatu zen solasaldian. ATARIA

Eneritz Maiz Etxarri Asteasu

Arnas luzea eman nahi izan dio Asteasuko Udalak, Pello Errotaren heriotzaren mendeurrenari, eta 2018an hasitako ekitaldien jarraipena izango da, aurtengorako prestatu dutena. Pili Legarra alkatearen ustez, Pello Errotak eta Mikaela Elizegik «oso ondo irudikatzen dituzte Asteasuren nortasuna eta ezaugarriak». Aldi berean, «Asteasu bezalako herriek beren izaera eta identitatea aldarrikatzea» garrantzitsua dela deritzo, kultura homogeneizatzen ari den garaioan.

Biek transmititzen dituzten ezaugarriak nabarmendu nahi dituzte, urtean zehar antolatu dituzten ekitaldietan, eta astelehenean emango diete hasiera, Santa Eske bereziarekin.

Bertsozale elkartearen eta Harituz Bertsozale Elkargunearen laguntza izan dute eta, egitasmo horiek antolatzeko, etorkizunera begira jarri dira udal ordezkariak. Udala Pello Errotaren izena daraman herriko eskolarekin harremanetan jarri zen eta, elkarlanean, unitate didaktiko bat ere prestatu dute.

Iazko otsailean jarri zituzten martxan mendeurrenaren ekitaldiak, baina, zehazki igandean, otsailaren 3an, beteko dira ehun urte, Pello Errota hil zela. Pedro Elizegi Maiz asteasuar errotaria izan zen, baina euskal gizartean denek Pello Errota moduan ezaugutzen dute.

Mendeurrenaren ekitaldietan Pello Errota bakarrik ez, Mikaela Elizegi haren alaba ere omendu nahi dute. Alabari esker iritsi da, gaurdaino, Pello Errotaren berri, berak kontatu baitzizkion, Antonio Zabalarri, aitaren pasadizo eta bertsoak. Emakume berezi, indartsu, berritsu eta memoria onekotzat definitu izan dute. Eta, Bernardo Atxagak, hari buruz hitz egitean, adimen handiko eta euskara eta sormen maila altukotzat aipatu izan du beti.



Atzo aurkeztu zituzten mendeurrenaren ekitaldiak, Asteasuko udaletxean. E. MAIZ

Pello Errota eta Mikaela Elizegi gogoan izango dituzte urte guztian

100 urte beteko dira, igandean, Pello Errota hil zela, eta Asteasuko Udalak iaz hasitako ekitaldi sortari jarraipena emango dio, urte osoan; Mikaela Elizegi alaba ere gogoan izango dute, haren euskara eta sormen maila goratuz

UNITATE DIDAKTIKOA

Pello Errotako irakaslea da Aitor Atxega: «Orain artean ez genuen Pello Errotari buruzko horrelako lanik eginda, eta handik eta hemendik bilatzen eta baliatzen genituen literatura asteak, ahoz-kotasuna,... Pello Errota lantzeko».

Eskolak frogazaleak direla argitu du Atxegak, eta egin duten unitate didaktikoa «oso gauza

zuzena, erreala eta egingarria» dela ikusten du. Eskolan ondo aprobetxatuko dutelakoan dago: «Oso ondo bereizita daukagu unitate didaktikoa, gazteenetik zaharrenetara bitarte. Eta Pello Errota eta Mikaela Elizegi aitzakia hartuta, heziketan sartuta dauzkagu natur zientziak, giza zientziak, hizkuntza, artea, sormena,...».

Irakaslearen ustez, «ziurtatuta

dugu unitatea ez dela boladako kontua izango, beti erabiliko dela baizik. Batik bat, intentzio egiazalearekin eta oso dosi jasangarrietan eginda dagoelako, era praktikoa eta argia».

Asteasuk eskola bakarra izanik, ia haur guztiak bertako eskolatik pasatzen dira eta, beraz, guztiak izango dute Pello Errotaren berri, eta baita Mikaela Elizegi bere alabaren berri ere.

EGITARAUA**Otsailak 4, astelehena**

Santa Eske berezia. Maialen Lujanbio, Oihana Iguaran, Aitor Sarriegi eta Haritz Mujika bertsolariak ariko dira koplatan, eta lagun izango dituzte Usarrabi abesbatza eta Juan Tapiaren ikasle diren trikitilariak. 17:00etan plazan elkartu eta bizpahiru taldetan banatuko dira ia baserri guztietara iristeko. Pello Errota eskolako ikasleek ere beste auzo batean abestuko dute, eta 19:00etan Aitzondo elkartearen bilduko dira guztiak herrigunea tabernaz taberna zeharkatzeko. 16:00etan, Usarrabi abesbatza Elizmendin eta Behebailaran hasiko da eskean.

Martxoak 10, igandea**Ane Labaka eta Beatriz Egizabal.**

Erradikalak garasaoia eskainiko dute feminismoa ardatz hartuta. Egungo gizartean kontraesanak agerian uzten dituen emanaldia da. Umoretik abiatuta, ikusleen sentimenduak ukitu nahi dituzte.

Apirila**Xabi Paya eta Bernado Atxaga.**

Pello Errotaren eta Mikaela Elizegiren aro historikoak, sormen klabeak eta gizartea ezagutzera emateko hitzaldia eta solasaldia izango da, eguna aurrerago zehaztuko dute.

Maiatzak 4, larunbata**Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa.**

Gipuzkoa Bertsoaren sailkapen faseko lehen saioa izango da, Asteasun.

Maiatzak 17, ostirala**Bertsoen kantaldia.**

Pello Errotaren eta Mikaela Elizegiren bertsoaldien aukeraketa egingo dute. Eñaut Agirrek abestuko ditu, Imanol Kamio piano jotzailearen eta Aitor Atxega gitarra jotzailearen laguntzaz, Santa Krutz ermitan.

Udazkena**Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren aurkezpena.**

Txapelketan parte hartuko duten bertsolari, gaitzaille eta epaile guztiak Asteasuko aurkezpenaren izango dira.



	ATARIKIDEAK	BESTEAK
KATILUA	8 EURO	10 EURO
BOLIGRAFOA + KOADERNOA	4 EURO	6 EURO
BOLIGRAFOA + KOADERNOA + KATILUA	10 EURO	14 EURO



Edonorentzat zabalik jarri dute Ibarako San Inazio auzoko irudiak biltzen dituen erakusketa. I. SAIZAR

Auzo oso bat iruditan jasota

Larunbatean zabaldu zuten Ibarako San Inazio auzoa iruditan biltzen duen erakusketa, Bizi Nahi elkarteak; auzoaren 50 urteen harira egin dute

Irati Saizar Artola

Ibarako San Inazio auzoak 50 urte bete zituen iaz eta, horren baitan, erakusketa bat jarri dute martxan, Bizi Nahi elkarteak. Auzoa sortu zenetik gaur egun arteko irudiak bildu dituzte, eta edonork ikusteko moduan izango dira, martxoaren 8ra bitarte.

Iazko udaberrian egin zuten

deialdia, etxez etxe, jendeak auzoko argazki zaharrak kultur etxera eraman zituzten. Han, eskaneatu egin dituzte, eta erakusketa argazki guztiak zintzilik jartzeko prestatu dituzte. Guztira, 60 argazki inguru bildu dituzte. Miren Gurutze Elordi antolatzaileak azaldu duenez, San Inazio auzoa artean sortu gabe zegoeneko irudiak ikus daitezke: «Le-

hen nolako festak egiten genituen, nolakoa zen auzoa edo lehengo futbol zelaia ikus daitezke. Duela 30 urte inguru auzoko futbol txapelketa egiten genuen, eta hango haurren irudiak ere baditugu».

Larunbat arratsaldean Ibarako koroaren emanaldiarekin zabaldu zuten erakusketa, eta edonorentzat irekita egongo da.



Pasa den ostiralean aurkezpena egin zuen, Tolosako Kultur Etxean. I. SAIZAR

Unai Amundarainek bigarren liburua argitaratu du

I. Saizar Artola

Historia, erlijioa eta mitologia bezalako gaien inguruan idatzi dituen olerkiak bildu ditu, liburuan, Unai Amundarain ibartarrak; *Enuma-Elish* izenburua jarri dio bere bigarren lanari.

Barne gogoetak, kritikak eta

kezkak azaleratu ditu liburuan eta, horretarako, bereziki rap musika eta Javier Sierra idazlea izan ditu erreferentzia. Aurkezpenean azaldu zuenez, iazko udan idatzi zituen olerki gehien, igerilekuan. Eskuragarri dago 41 olerkiz osatutako liburua, 13 euroren truke.



BERRITZE LANAK

Ibarako Belabieta kiroldegian berritze lanak egin dituzte. Zoru berria jartzeaz gain, muskulazioa lantzeko hiru makina berri eta korrika egiteko zinta berri bat jarri dituzte. Aurrerago, margoketa lanak egin eta argiteria aldatuko dute. ATARIA

IKASTOLA elkarrekin hezkuntza eraldatzen

Matrikulazio epea urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra



Mozorroa eta puska biltzea hizpide, inauteri aurrean

‘Inauteriei mozorroa erantzten’ hitzaldia eskainiko du Oier Araolaza adituak, bihar, Lizartzako kulturgunean

Irati Saizar Artola Lizartza

Neguko festei, puska biltzeari, euskal dantzei eta genero ikuspegiari buruz arituko da, Oier Araolaza aditua, bihar, 19:30ean, Lizartzako kulturgunean. *Inauteriei mozorroa erantzten* hitzaldia antolatu du Otsolar dantza taldeak eta, ondoren, merienda-tzeko tartea hartuko dute.

Bi haritatik tiraka gidatuko du hitzaldia: batetik, mozorroi buruz arituko da eta, bestetik, puska biltzeari eskainiko dio tartea. Horiek, ordea, aitzakia besterik ez dira izango, beste gai batzuek aritzeko. Araolazak azaldu duenez, «tradioaz, komunitateaz, kohesioaz, gizarteaz, ekonomiaz eta generoaz» arituko da: «Nola izan diren, eta azken urteetan nolako eraldatzeak izan dituzten».

Mozorroa eta puska biltzea inauteriekin soilik lotzen dute

askok, baina, Araolaza erakusten saiatuko da, nola neguko festa gehiagotan ere betetzen diren ezaugarri horiek. «Konturatuko gara, mozorroak ez direla soilik inauterietan agertzen. Adibidez, beste neguko festa bat ere, arimen gaua, mozorro festa bat da, eta eske erronda bat dauka. Horiek identifikatuko ditugu».

Inauteriak aldatzen doazen festak direla dio, garai bakoitzak bere festa modua duela: «XX. mendean, ordea, festaren merkantilismoa gertatu da, nabarmena da interes komertzialak sartu direla festaren egituratze eta antolaketan, eta horrek norabide batzuk markatu ditu». Mozorroaren kasua da adibiderik garbiena. Garai batean etxeko traste eta arropa zaharrekin mozorrotzen zen jendea eta, egun, askok eta askok, erosi egiten dute. Era berean, eske erronden egituratzean ere baditu aldake-



Ohituraz, puska biltzera ateratzen dira lizartzarrak inauterietan. Irudian, 2016ko inauteriak. JON MIRANDA

taren adibideak: «Neguko festa batzuetan eske errondak bertan behera geratu dira, eta opari edo ondasun truke hori kontsumoa bultzatzeko mekanismo bihurtu da. Gabonetan, adibidez, trukeko ekonomiatik kontsumoko ekonomiara pasatu gara, izan ere, puska biltzen ibiltzetik, Bizarhuri edo Olentzerori opariak etxeetara ekartzeko gaitasun magiko bat dutela aitortzera pasatu gara».

Festa horiek euskal kulturatik zer duten eta Europako kulturatik zer bait jaso ote duten ere aztertuko du. «Kulturaren joan-etorria etengabea denez, antzekotasunak ikusiko ditugu».

DANTZAK ERE HIZPIDE

Inauterien beste osagai bat ere aipatuko du hitzaldian, Araolazak: dantza. Osagai horren ezaugarriak «bitxiak» iruditzen zaizkio. Izan ere, mota zehatz bateko jantziekin egiten da, zuriz, eta apaingarri koloretsuekin. Eta dantza mota batzuk oso lotuta doaz elkarrekin, askotan, makila dantzak edo trokel dantzak izaten baitira.

Zentzu horretan, Lizartzan «ondare aberatsa» dutela dio, «meritu itzela» daukatela, inauterietako dantzei eutsi dietelako: «Lizartzako dantzak ederrak eta aberatsak dira, bai koreografikoki, eta baita musikalki ere».

Lizartzako inauteri dantzak genero berdintasuna aplikatzen «aitzindariak» izan direla dio. 2004an dantzatu zituzten emakumeek, lehen aldiz, inauterietako dantzak. «Horretarako, lizartzarrek lanketa bat egin zuten aurretik, borroka bat, tentsioak eta erresistentziak; inork ez zien Lizartzako emakumeei ezer oparitu».

Berdintasun kontzientzia batetik landu zuten aldaketaren gaia, Oier Araolazaren ustez, bide zuzenetik. Izan ere, bere arabera, «ez dauka inongo zentzurik dantza batean, erritual komunitario batean, gizonen eta emakumeen arteko bereizketa eta bazterketa aplikatzeak».

ataria jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

TAKEk ligako sailkapenean gora egitea du helburu

Bigarren itzulia hasi berritan, saskibaloiko emakumezkoen lehen taldea zortzigarren postuan da

Imanol Garcia Landa

TAKE saskibaloiko klubeko emakumezkoen lehen taldeak hamabi jardunaldi jokatu ditu ligan dagoeneko; erdiak baino bat gehiago. Zortzigarren postuan daude, lau partida irabazi eta zortzi galdu ondoren. «Helburu nagusia lehen zortzi postuetan ibiltzea da», esan du Alain Rekondo entrenatzaileak: «Aurreko urtean bosgarren bukatu genuen liga, eta nahia beti izaten da goitik ibiltzea». Rekondok gaineratu du, bazekitela aurtengo denboraldia ez zela erraza izango: «Baja batzuk izan ditugu, eta esango nuke ligako maila, orokorrean, igo egin dela. Ez nuke esango emaitza oso txarrak izan direnik, baina gure nahia pixka bat gorago ibiltzea da».

Nerea Elozegi kapitainak, Rekondoren hitzei jarraipena emanaz, gogora ekarri du aurreko denboraldian hamabost fitxa ziztuztela, eta oraingoan hamar: «Nire ustez trantsizio momentu batean egon gara, lehenengo hilabete hauetan. Kostatu egin zaigu horretara egokitzea eta, onartzea, pertsona gutxiago gaudela, eta horrek ere jokoa aldatu egingen duela». Bestalde, joan den asteburuan jokatuako partida ai-



TAKE taldeko jokalariek eta entrenatzaileak. ATARIA

patu du: «Aldaketa eta hobekuntza handia ikusi dugu, eta ari gara, gutxika, gure artean jokoa zein den ikusten. Hemendik aurrera gora egitea da asmoa».

Asteburuan jokatuako partida «polita» izan zela esan du Rekondok: «Galdu egin genuen, 49-51, eta egia da esperotakoa zela galtzea, aurkaria bigarren doan Ostadar talde indartsua zelako. Baina, partida nola joan zen ikusita, pena izan zen galtzea. Oso berdinduta joan zen, eta gure maila onenetakoa erakutsi genuen». Jokoaren aldetik, entrenatzaileak gaineratu du, helburua asteburuan erakutsitako maila izatea dela. Elozegik gehitu duenez, talde bezala denek

nahiko «harro» bukatu zuten: «Azken finean, talde bezala jokatu genuen, eta emaitza polita ikusi genuen. Gero taldeko afaria egin genuen, eta horrek ere laguntzen dio barruko giroari».

KANPORAKETA JOKATZEA

Denboraldi hasieran helburu nagusia talde jokoa finkatzea izaten dela dio Rekondok eta, denboraldia aurrea doan heinean, «hobetzea». Emaitzak beti hortik etortzen direla gaineratu du: «Entrenatzaileok komentatu genuen lehenengo zortzi taldeen artean sailkatzea izango zela helburu nagusia. Lehenengo zortzi postuek ematen dute aukera, igoerako kanporaketa jokatzeko.

Justu-justu, baina hori betetzean ari gara».

Bere aldetik, Elozegi baikor begiratzen dio datorrenari: «Lehenengo itzulian partida askotan hor egon gara lehian, eta galdu egin ditugu tarte gutxirengatik. Bigarren itzulian partida horiek atera egin behar ditugu, eta, joan den asteburuan ikusitakoarekin, nik uste dut atera egingo ditugula, eta zortzigarren postua baino gorago geratuko gara».

Orain arte bi entrenamendu egin izan dituzte, eta denboraldi honetan hiru entrenamendurekin hasi dira: «Behin entrenamenduak aurrera doazela, pixka bat gehiago irakurtzen dugu, eta

badakigu zein jokalarik erantzungo dugun, eta nola jarraituko dugun jokatzeko. Konplizitate hori lortu dugu», dio kapitainak. Bestalde, Elozegi dio urte askoz batera jokatzeko ari diren jokalariek daudela taldean: «Gure artean giroa oso ona da, eta hori bai dela oinarrietako bat, oraindik jokatzeko jarraitzeko, eta gure arteko giro horrekin aurrera joateko».

Astean hiru entrenamendu egiteak sakrifizioa eskatzen duela azaldu du Rekondok. «Asteburuo partida izateak baldintzatzen du zure egunerokoa. Eta entrenatzaileok askotan kezkatzen gara, baina, egia da, konpromiso maila handia dela, eta eskertzen diegu». Giro aldetik «oso gustura» dagoela gaineratu du Rekondok, «eta, batez ere, poz handia ematen dit ikusteak, jokalariek jarraitzen dutela etortzen, umore ona dagoela, eta ez dagoela arazorik».

TAKEn emakumezkoen zortzi talde daude, maila guztiak kontuan hartuta eta, alde horretatik, «nahiko pozik» daudela dio Rekondok. «Mutil eta nesken artean parekidetasun maila bat izatea nahi duen klub bat gara, bai. Infantil eta kadete mailetan gero eta talde gehiago gara, jokalariek asko datoz behetik». Gai horri lotuta, Elozegi nabarmendu du aurtengo senior mailan bigarren talde bat atera dela: «Azken finean, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortzea urtetan nahi izan dugu, eta zaila izan da erabakitzea, aurtengo bi talde egiteak merezi zuen edo ez». Elozegi gaineratu du denak ados daudela pausoarekin: TAKErentzat eta neskeentzat seniorretan bi talde izatearekin eta, gutxika, berdintze hori izatearekin».

Lehenengo postuarekin, motibatuta



Aulkitik
Leire Lopetegi
Tolosa CF, Euskal Liga

Astean zehar, futboleko entrenamenduetan ari ginela ematen zuten, zelaia putzuz beteta baitzegoen. Nahiz eta eguraldiak ez lagundu, gogor entrenatzen jarraitzen dugu, eta pixkanaka taldeko lesionatuak berreskuratzen ari gara. Baina, oraindik, beste batzuk hor jarraitzen dute gogor, eta taldera bueltatzeko gogoz lanean.

Partida Derioren aurka tokatzen ziztaigun, eta bagenekien

ez zela erraza izango, beti kostatu izan baitzaigu beraien aurka jokatzeko. Beste urteetan ere larri ibili ginen, baina orain inoiz baino indartsuago gaude, eta horri heldu behar diogu; parean dagoena edozein izanda ere denon artean lortuko dugu.

Larunbatean kanpoan tokatzen zen, beraz, autobusa hartu eta Deriora abiatu ginen. Autobusean, nola ez, musika topera jarri eta, abestu beharrean, garrasika joan ziren eta, Zuriñek gitarra eraman zuenez, are gehia-

go. Bertara iritsi eta batzuk aldagelara joan ginen aldatzera. Lesionatuak, ogitartekoa hartu, eta eguzkitan zegoen banku bakoarrera joan ziren, lasai asko bazkaltzera; egia esan, aldagelatik atera eta urrutira begiratzean, inbidia ematen zuten.

Partida, emaitza ikusita, erraz irabazi genuela ematen du, baina lehenengo zatian asko kostatu zitzaigun erritmoa hartzea, eta aukerak edukitzea. Baina, bigarren zatian jarrera aldatu, eta irabaztera atera ginen, eta hortxe

etorri ziren golak, jarraian. 2-8ko emaitzarekin amaitu zen partida eta, nola ez, gol horien artean gure pitxitxiak ere gola sartu zuen. Hala ere, abisu bat: kontuz ibili Ainhoa, nik jada bosgarren martxa sartuta dut eta, partiduz partiduz golak gorantz doaz.

Datorren asteburuan, Usabalen jokatu dugu, igandean 15:45ean, Oizartzen aurka. Lehenengo postuan gaude eta, horrek, urduri jarri beharrean gehiago motibatzen gaitu. Beraz, denak animatzen etortzea eskatzen dizuegu, denboraldi bukatu horretan jarrai dezagun. Aupa neska! Ikaragarriak zarete eta segi horrela!



EGUNA, 20XXKO XXXAK XX
Argitaratzailea:
 Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeke Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
 villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
 anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
 alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
 Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



400 urteak ospatzeko, urte osoko egitaraua

Amasa eta Villabona duela lau mende elkartu ziren; data hori ospatzeko, 12 hilabeteak kultur eta kirol ekitaldiz osatu dituzte.



Ordezkeri politikoak eta eragileetako ordezkariak izan ziren, atzo, egitarauaren aurkezpenean. A. IMAZ

Asier Imaz Amasa-Villabona

Villabonako Udalak, herriko kirol eta kultur eragileekin batera, urte osorako egitaraua antolatu du, Amasaren eta Villabonaren elkartzearen 400 urteurrenean. «Egitarau berezi hau gure identitate eta elkarbizitza sendotzeko antolatu dugu», azaldu du Maite Izagirre alkateak; «horregatik, bi ideiak lotzen dituen leloa aukeratu dugu: *2 herri, helburu 1*».

Mertxe Garmendia kultura zinegotziak egitarau «irekia» dela azpimarratu nahi izan du aurkezpen agerraldian: «Herriko kultur eta kirol taldeen ekarpe-

netara irekia dagoena, eta baita herritarrenetara ere. Ideia nagusia gure kulturari balioa ematea da, eta komunitate honekiko du-

gun parte hartzea sustatzea». Horrez gain, Joxean Cubero kultura teknikariaren lana ere gorai-patu du.

'2 HERRI, HELBURU 1', EGITARAUA

Lehen hiruhilekoa

Urtarrila. Santio jaietan eta Amasako sanmartinetan erabiliko diren buruhandiak aukeratzeko prozesua ireki du udalak. Otsailaren 18ra bitarte, herritarrek buruhandiak@villabona.eus-en ekarpenak egiteko aukera izango da.

Otsaila. Amasa-Villabona, iragana eta oraina argazki lehiaketa jarriko dute martxan, haur eta helduentzat.

OSTEGUNA 31

AGENDA

Deialdiak

Alegia. Ipuin kontatzea, 17:00etan, liburutegian.

Amasa-Villabona. Zubimusu ikastolaren jardunaldi pedagogikoetan, Brain Gym, 17:15ean.

Ibarra. Uzturpe ikastolaren kultur astean, yoga tailerra, 17:00etan.

Tolosa. Amalur jardunaldiak, 19:30ean, Topic-en: Asier Hilario. *Harriz harri. Pirinioetako mendiak eta geologia* saioa, gaztelaz.

Zizurkil. Martxoaren 8ko greba antolatzeke lehen biler, 19:00etan, Atxulondo kultur etxean.

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko

21:30. Gaurkoan Tolosaldeko

22:00. Urrutiajunbe

22:30. Artekale

23:30. Gaurkoan Tolosaldeko

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Ignacio Olarrreaga Aranburu
 Korreo kalea, 2
 943 67 01 28

Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza.
 Amarotz auzoa, 9
 943 67 51 18

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Zertxobait epeltzera egingo du eguraldiak, hegomendebaldeko haizearekin. Erdiko orduetan 12-14 gradu inguru. Zeruan hodeiak nagusi, eta euria. Zaparrada mardulenak lehen orduetan eta arratsalde erditik aurrera.

Bihar. Negu-beteko giroa bueltan. Aire hotzak eta ipar-mendebaldeko haize zakarra, eta tenperaturen beherakada nabarmena; ez da 7-9 gradutik pasako. Zeruan hodei ugari eta euria. Euri zaparradak sarri eta tarteka ekaitzak kazkabarra. Elur maila, goizean 1.000-1.100 metroan; eguna bukatzerako 600 metroan.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza: Goizeko magazina. Tartean Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, solasaldia gazteekin, Karin Van Der Worp eleaniztasunaz, Joxemari Iturralderekin Astero liburu bat, Quark zientzia atala eta Alnhoa Mendiluze Kale kantoititk.

11:00. Hamaiketakoak: Tolosako albisteak Josu Artutxarekin.

12:00. Entzuteko jaiok. Musika saioa.

13:00. Erakutsiz ikasi. Tolosaldeko ikastetxeek eginiko saioa.

16:00. Zebrabidea. Arroza sareko magazina.

18:00. Eguneko saioen onena.

20:00. Erakutsiz ikasi. Tolosaldeko ikastetxeek eginiko saioa.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko

16:30. Kantari Donostia 3. saioa



Martxoaren 16a
larunbata,
arratsaldeko
16:00etan eta
18:30ean,
Tolosako Leidor
antzokian

Sarrerak Tolosaldeko Atarian salgai ondorengo egun eta orduetan. Sarrerarik ez da erreserbatuko.

- Otsailak 4, astelehena: 15:30etik 18:00etara (Atarikideentzat, txartela ekarri beharko da)
- Otsailak 5, asteartea: 09:00etatik 12:30era (Atarikideentzat, txartela ekarri beharko da)
- Otsailak 6, asteazkena: 15:30etik 18:00etara
- Otsailak 7, osteguna: 15:30etik 18:00etara
- Otsailak 8, ostirala: 09:00etatik 12:30era
- Otsailak 11, astelehena: 15:30etik 18:00etara
- Otsailak 13, asteazkena: 15:30etik 18:00etara
- Otsailak 15, ostirala: 09:00etatik 12:30era

Eserlekuak zenbaituak izango dira eta bakoitzaren salneurria 8 eurokoa izango da.

Antolatzailea: Tolosaldeko Ataria (San Esteban auzoa, 20, Tolosa 943 65 56 95 - ataria@ataria.eus)